

LG NA 398-2015



Baztango Udala

BAZTANGO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO I.BERDINTASUN PLANA

2015-2018



Nafarroako
Gobernua

berdintasuna@baztan.eus | 948580006 | www.baztan.eus

Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako
Institutuak lagunduta

AURKIBIDEA

1 SARRERA	3
2 BERDINTASUNERAKO PLANEN MARKO KONTZEPTUALA ETA LEGEZKOA	4
3 PLANA DISEINATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA	6
4 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAREN EGITURA	7
5 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA	19
5.1 Tokiko Administrazioa	19
5.2 Kultura, Aisialdia eta Kirola	32
5.3 Hezkuntza eta Gazteria	40
5.4 Tokiko Garapena eta Enplegua	50
5.5 Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	58
5.6 Lurralde Antolamendua	65
6 BERDINTASUNERAKO PLANA GARATZEKO METODOLOGIA ETA EGITURAK	69
7 KOMUNIKAZIO ETA PARTE-HARTZE PLANA	72
8 BERDINTASUNERAKO PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	73
9 EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN PLANA GARATZEKO BALIABIDEAK	74
10 HIZTEGITXOA	74



1. SARRERA

Baztango Udalak emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna lortzeko duen konpromisoaren adierazle, 2012. Baztango Berdintasun Saila jarri zuen abian. Ordutik hona, Emaztekien eta Gizonen aukera Berdintasuna sustatzea lehentasunezko ardatza da Baztango Udalarendako eta bide horretan zenbait ekintza eta programa sustatu ditu: Udaleko langile edo hautetsiendako nahiz herritarrendako prestakuntza, ikastetxeetako hezkidetzeta saioak, sentiberatze kanpainak etab. Berdintasunaren arloa lantzeko eta baztandarren parte hartzea bermatu ahal izateko, Berdintasun Batzorde irekia sortu zen eta elkarlanean parekidetasunean zurkaiztutako jendartea erdiesteko oinarriak finkatzen hasi ginen.

Norabide honetan aitzinurratsak eman ahal izateko eta berdintasunaren aldeko politika estrategia baten barnean kokatu ahal izateko Baztango I. Berdintasun Plana egitea erabaki zen eta Planaren oinarri izanen zen Diagnosi parte hartzailea paratu zen abian. Diagnosiaren ondotik Baztango Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko I. Plana iritsi da, udalerrian berdintasuna bulkatzeko oinarritzko tresna dena. Plan honek 4 urteko iraunaldia izanen du (2015-2018) eta emaztekien eta gizonen arteko parekotasuna lortzeko helburuak nahiz ekintzak biltzen ditu.

Baztango Udaleko 2014ko abenduaren 18ko Ohiko Osoko Bilkurak onartu du Baztango Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko I. Plana.

Txosten hau zazpi ataletan banatuta dago:

- Berdintasunerako marko kontzeptuala eta legezkoa.
- Plana diseinatzeko erabilitako metodologia.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren egitura: Baztango Berdintasun Planean 4 ardatz estrategiko eta eskuhartzeko 6 eremu biltzen dira.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako I. plana: Planaren mamia biltzen duena. Atal honetan arloz arloko helburu orokorrak eta ekintza zehatzak definitzen dira.
- Berdintasunerako plana garatzeko metodologia eta egiturak: I. Berdintasun Plana garatu ahal izateko martxan paratu beharreko egiturak eta horien funtzioak definitzen dira atal honetan.
- Komunikazioa eta parte hartzea: Berdintasun Plan honetan Komunikazioari berebiziko garrantzia emanen zaio. Plana jendarteratzeko eta herritarren inplikazioa bildu nahian komunikazio estrategian ahalegin berezia eginen da.
- Berdintasunerako planaren jarraipena eta ebaluazioa: Plan honek eten gabeko jarraipena egitea proposatzen du eta horretaz gain aldiari aldi ebaluazioak egiten dira.



2. BERDINTASUNERAKO PLANEN MARKO KONTZEPTUALA ETA LEGEZKOA

2.1 MARKO KONTZEPTUALA

2.1.1 ZER DA BERDINTASUN PLANA?

- Ekintza konkretuen bitartez Baztango emaztekien eta gizasemeen artean berdintasuna ahalbidetzeko tresna.
- 4 urteko epearen barnean (2015etik 2018 bitarte) berdintasun alorrean landu beharreko ildo estrategikoen eta ekintzen multzoa.
- Honela, Berdintasun Plan honek parekidetasunaren aldeko lana estrategia baten barnean txertatzea ahalbidetuko du.

2.1.2 SEXU-GENERO SISTEMA

Sexua: emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasun biologikoa definitzen duena.

Generoa: gizarte batek, une soziokultural zehatz batean, emakumezkoiei eta gizonezkoiei ezartzen dizkien ezaugarri, jarrera eta jokabide bereizgarriak dagokie. Kontzeptu dinamikoa da, genero-rolen eduki zehatzak garai historikoaren eta gizartearen arabera aldatzen baitira.

2.1.3 BERDINTASUNA

Hasteko, berdintasun formalaren eta benetazko berdintasunaren arteko desberdintasuna egin beharra dago. **Berdintasun formalak** diskriminaziorik ezaren printzipioa dakar eta legeen aitzinean berdinak izatea erran nahi du. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintza bada ere, ez da nahikoa. Horren harira, Europako Kontseiluak (1982) hauxe aitortu zuen: *“Emakumeen eta gizonen berdintasuna, gizakiaren arrazoiaren eskakizuna bada ere, ez da errealitatea, ideal demokratikoak aldarrikatzen dituzten gizarteetan ere”*.

Benetako berdintasuna aldiz, tratu-berdintasuna da. Sexuan oinarrituriko diskriminaziorik ez egotea erran nahi du, ez zuzeneko diskriminazioa ez eta zeharkakoa ere.

Horregatik, Administrazio publikoek **aukera-berdintasunaren** alde lan egitea beharrezkoa da. Aukera-berdintasunaren helburua eskuhartzeko markoa sortzea da, hau da, emakumezkoiei nahiz gizonezkoiei jendarteko arlo guztietan (politikoa, ekonomikoa, sozialean, kulturean...) baldintza,



ikusgarritasun, autonomia eta erantzukizun berarekin askatasunez parte hartzea ahalbidetuko dien egoera.

2.1.4 EKINTZA POSITIBOAK

Aukera berdintasuna lortzeko bidean, aldi-baterako neurriak ezartzen dira: **ekintza positiboak**. Ekintza positiboak abiapuntuan desabantailak dituztenen aldeko estrategia batean kokatzen dira eta helburua abantaila dutenen mailara irsitea da. Hala bada, Berdintasun Planak ekintza positiboko planak ere badirela erran daiteke.

2.1.5 GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

Baztango I. Berdintasun Planean maiz errepikatzen den kontzeptua da **Genero ikuspegia Udalean txertatzea**. **Genero-ikuspegia** Udalean txertatzeak hauxe erran nahi du: sistematikoki politika publikoetako fase guztietan (plangintzan, garapenean nahiz ebaluazioan) emaztekien eta gizonen egoerak, baldintzak, beharrak eta nahiak aintzat hartzea, betiere desberdintasunak desagerrarazteko eta Udalaren politika, jarduera eta ekintza orotan parekidetasuna sustatzearen. Horretarako, egungo jendartean gertatzen diren genero harremanak berdefinitu behar dira eta emakumezkoen egoera zein den agerian utzi.

2.2 MARKO LEGEZKOA

Emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna lortzeko helburuz zenbait arau eta lege onartu dira Nafarroan, Estatu Espainarrean zein nazioartean. Baztango I. Berdintasun Plana legezko marko horretan oinarritzen da.

- **Emakumearen aurkako bereizkeria era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak** (NBERen Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuenak eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsiak) emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, ondoko konpromisoa hartu zuten NBEko kideek: «printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea».
- Bestalde, 1999ko maiatzaren lehenean **Amsterdamgo Ituna** onartu zen, Batasuneko kide diren estatuetako politika guztietan berdintasun printzipioa integratu behar dela azpimarratzen duena.
- **Toki Bizitzan emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Europako Karta (2005-2006)**. Europako toki-gobernu eta eskualdeetako gobernuetara zuzendutako idatzia da eta Karta honetan azpimarratzen da tokiko eta eskualdetako agintariak, herritarrengandik hurbilen dauden gobernu eremuak izanik, ezberdintasunen iraunkortasuna sahiesteko eta




berdintasunezko jendartea lortzeko esku-hartze eremu egokienak direla.

- Espainiar Estatuan, **3/2007 Lege Organikoa**, martxoaren 22koa, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun eraginkorra bermatzekoa.
- **22/2002 Foru Legea, uztailaren 2koa**, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa.

Baina batez ere, Baztango I. Berdintasun Plan honek bi oinarri nagusi izanen ditu. Alde batetik, Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. Plana (2006-2010) izanen du helduleku eta, bestetik, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren egitura hartuko du eredu. Azken honek, bere egin ditu ekintza positiboa eta genero-ikuspegia edo mainstreaminga txertatzea.

Horren ondorioz, Baztango I. Berdintasun Planaren diseinuak bi Plan horien jarraibideak hartuko ditu kontuan.

3. PLANA DISEINATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA




2013. urtean, prozesu parte hartzaile baten bidez, Baztango Berdintasun Planaren lehen faseari hasiera eman zitzaion Baztango Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren gaineko diagnosiarekin. Prozesu parte hartzaile honek bi helburu nagusi izan zituen. Alde batetik, Baztango Udalerria bere testuinguruan kokatzea eta bestetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdiesteko bidean Baztango egoera zein zen ezagutzea. Gonbidapen bidezko partaidetzan oinarritutako prozesua izan zen eta eta metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili ziren: etxez etxe banatutako inkesten bidezko datu bilketa eta, azterketa ez ezik, arlo ezberdinetako lau eztabaida talde ere egin ziren. Hauek izan ziren eztabaida taldeetako partaideak: Udaleko langileak, alkate-zinegotziak eta herrietako alkateak, Baztango eragileak eta Berdintasun Batzorde irekiko kideak.



Lehenbiziko azterketa hau Baztango Berdintasunerako I. Planaren abiapuntua izan da. Azterlanaren jendarteratzea egiteko Komunikazio plan bat diseinatu zen eta tokiko komunikabideetan oihartzuna izateaz gain Diagnosiaren laburpenaren gaineko esku-orria argitaratu eta etxez etxe banatu zen.

2014ko ekainean hasi zen bigarren fasean, Eraldaketaren eta helburuen zehaztapenaren fasean, berriro ere partehartzeko prozesu bat paratu zen martxan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun alorrean ondoko lau urteetako ardatz estrategikoak zein ekintza zehatzak zehazteko. Diagnosian oinarrituta lehentasunezko 6 arlo berezi ziren eta arlokako kontraste-lan saioak egin ziren Udaleko zenbait sailekin 8 kontraste bilera egin ziren guztira eta hauetan jasotako ekarpenekin behin-behineko zirriborroa osatu zen. Udaleko sailekin egindako lan saioez gain, Berdintasun Batzorde Irekiarekin ere eztabaidatu ahal izan zen lehen zirriborro hau eta akitzeko, Planaren diseinuari akabaila ematearren, Baztango 4 alderdi edo kuarteletan jendaurreko aurkezpenak egin ziren herritarren parte hartzea bermatzeko eta horien ekarpenak jasotzeko.

4. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO PLANAREN EGITURA



Ehundegian ehuntzen

Baztango I. Berdintasun Planak ehundegi baten egitura izanen du. Alde batetik, zeharka landu beharreko ardatz estrategikoak izanen ditugu eta bestetik, eskuhartzeko eremuak edo arloak.

Berdintasun planaren egitura = ardatz estrategikoak + eskuhartzeko arloak



4.1 ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Baztango I. Berdintasun Planak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana izan du oinarri eta haren egitura hortatik hartu da. Ardatz estrategikotan eta eskuhartzeko arlotan antolatutako plana izanen da. Ardatz estrategikoak, berdintasun erreala lortzeko lehentasunezkoak diren lan ildoak dira eta eskuhartzeko eremu edo arlo guztietan zeharka landu beharrekoak.

Eskuhartzeko eremuak berriz, parekidetasuna erdiesteko bidean landuko diren arloak dira; eskuhartzeko esparru funtzionalak.

I. Berdintasun Planean 6 arlo aukeratu dira eta hauetan 4 ardatz estrategiko landuko dira.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Mainstreaming edo zeharkakotasuna	Emakumeen ahalduntzea eta parte hartzea	Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna	Emakumeen aurkako indarkeria
Botere publikoen politika eta ekintza guztietan genero ikuspegia txertatzea.	Sexu-genero sistemak sortutako harreman hierarkiko eta ez parekideak gainditzeko, emakumeen ahalduntze prozesua ezinbestekoa da. Emakumeek politika publikoen diseinuan, ezarpenean eta balioespenean parte hartzeko aukera izatea da helburua.	Bateragarritasuna eta erantzunkidetasunerantz doan jendarte antolamendua lortzea ahalbidetuko duen tresna berriak sortzea da helburua.	Emakumeen aurkako indarkeria da emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larrietako bat. Egitura patriarkalean funtsezatzen den indarkeria hau deuseztatzea da ardatz honen helburua.

4.1.1 MAINSTREAMING EDO ZEHARKAKOTASUNA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean, Baztango Udaleko sail guztietan zeharkakotasuna txertatzea beharrezkoa izanen da. Horregatik, lehendabiziko ardatz honek I. Berdintasun Plana garatu ahal izateko ezinbesteko estrategiak eta ekintzak bilduko ditu. Baztango Udaleko politika eta lan antolamenduan genero ikuspegia txertatzea da ardatz honen helburu nagusia eta horregatik, politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta ebaluazioan eta Udaleko sailen lan funtzionamenduan kontuan hartu beharreko ardatza izanen da.



Besteak beste hauek dira ardatz honen barruan kokatuko diren helburuak: berdintasunaren aldeko neurriak eta arauak ezartzea, koordinazio egiturak sortu eta sendotzea, aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea, Berdintasun Plana jendarteratzea...



4.1.1 MAINSTREAMING EDO ZEHARKAKOTASUNA

Tokiko administrazioa	Kultura, aisialdia eta kirola	Hezkuntza eta Gazteria	Tokiko garapena enplegua	Osasuna eta Gizarte Zerbituzak	Lurralde Antolamendua
<p>Helburu nagusia: Udaleko barne antolaketan zein kudeaketan genero ikuspegia txertatzea.</p> <p>1. helburua: Berdintasun plana garatu ahal izateko egiturak eta baliabideak eskaintzea.</p> <p>2. helburua: Udaleko lan jardunean genero ikuspegia txertatzea.</p> <p>3. helburua: Udaleko ordezkari politikoek zein teknikariek genero ikuspegiarekin lan egitea.</p> <p>4. helburua: Udaleko kontratazio, diru laguntza zein hitzarmenetan berdintasun klausulak ezartzea.</p> <p>5. helburua: Baztango Udaleko aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.</p> <p>6. helburua: Baztango jendarterea emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren gaiarekin sentiberatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: Baztango kultura, aisialdi zein kirol programazioan genero ikuspegia kontuan hartzea.</p> <p>1. helburua: Baztango kultura, aisialdi zein kirol programazioan genero ikuspegia kontuan hartzea.</p> <p>2. helburua: Baztango kultura, aisialdi eta kirol taldeetan genero ikuspegia kontuan hartzea</p>	<p>Helburu nagusia: Hezkuntza komunitatean genero ikuspegia txertatzea.</p> <p>1. helburua: Hezkuntza eta Berdintasun sailaren arteko koordinazio egitura bermatu.</p> <p>2. helburua: Baztango ikastetxeetako maila guztietan Hezkidetzan oinarritutako hezkuntza eredua sustatzea.</p> <p>3. helburua: Baztango gazteen artean parekidesuna bermatzea.</p> <p>4. helburua: Ikastetxeetan genero rolen lanketa</p>	<p>Helburu nagusia: genero ikuspegia kontuan hartuko duen tokiko garapena eta enplegu politika bultzatu.</p> <p>1. helburua: Tokiko Garapenean genero ikuspegia txertatzea eta egoera ikustaraztea.</p> <p>2. helburua: Genero ikuspegia kontuan hartuko duen enplegu politika bultzatzea.</p> <p>3. helburua: Berdintasuna eta tokiko garapen sozioekonomikoa uztartzea emakumeen enplegu tasa handituz.</p>	<p>Helburu nagusia: Gizarte eta Osasun Zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea.</p> <p>1. helburua: Genero ikuspegia kontuan hartzen duen Gizarte eta Osasun zerbitzuen politika bultzatzea.</p> <p>2. helburua: Menpekotasuna duten pertsonen zaintzan emakumezkoak eta gizezkoak modu orekatuan inplikatzeko neurriak hartzea.</p>	<p>Helburu nagusia: Herri antolamenduan eta Ingurumen politiketan genero ikuspegia txertatzea.</p> <p>1. helburua: Baztango hirigintza saillean genero ikuspegia txertatzea</p>



4.1.2 EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE HARTZEA

Marcela Lagarde: *“Ahduntzea emakumeek egin beharreko bide eraginkor eta sendoa da. Genero zein pertsonen gatibutasunaren ezabapenera gidatuko duen bidea hain zuzen ere. Ahduntzea deitzen diogu emakumeen eraldaketa prozesuari. Horren bidez, pixkanaka edo aurrerapausu handiak ematen direnean historiaren, politikaren eta beste batzuen objektu izateari utzi eta bere bizitza propioaren subjeto izatera iristen da. Historia, politika eta bizitza sozialaren protagonista izatera iristen da (...) eskubideduna izateko eskubidea izatearen kontzientzia garatzea, berezko autoritatea aitortzea eta norberaren nahiak lortzeko konfidantza izatea.”* Marcela Lagarderen definizioan oinarrituta beraz, ahduntzea ahalmena izatea, baimentzea eta prestatzea esan nahi du.

Beraz, sexu-genero sistemak sortutako harreman hierarkiko eta ez parekideak gainditzeko, emakumeen ahduntze prozesua ezinbestekoa da. Emakumeak banaka zein kolektibo gisa beren egoeraren jabeazteari dago lotuta ahduntze prozesua eta emakumeek politika publikoen diseinuan, ezarpenean eta balioespenean parte hartzeko aukera izatea da helburua. Ahduntzeak beraz, “botere berreskuraketa” esan nahi du eta Baztanen egindako diagnosian oinarrituta, arlo hau lantzeak lehentasuna izanen du. Baztango emakumeen ahduntzeari eta parte hartze soziopolitikoari berebiziko garrantzi eman nahi zaio.

Besteak beste, hauek dira ardatz honen barruan kokatuko diren helburuak: emakumeen autonomia lantzea, Baztango emakumeen partaidetza soziopolitiko sustatzea, neska gazteen jabeakuntza prozesuak bulkatzea, landa eramuko emakumeei balio sozial handiagoa ematea, emakumeen ekintzailetasuna azkartzea.



4.1.2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTEHARTZEA

Tokiko administrazioa	Kultura, aisialdia eta kirola	Hezkuntza eta Gazteria	Tokiko garapena enplegua	Osasuna eta Gizarte Zerbituzak	Lurralde Antolamendua
<p>Helburu nagusia: Baztango emakumeen ahalduntzea sustatzea.</p> <p>7. helburua: Baztango eremu erabakitzaileratan emakumeak subjeto aktiboa izatea.</p> <p>8. helburua: Baztango emakumeen jabeakuntza prozesuak bultzatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: Kultura, kirol zein aisialdi eremuan emakumeen parte hartzea bultzatzea.</p> <p>3. helburua: Baztango 15 herri guztietako bestetan emakumeen eta gizonen parte hartze parekidea bermatzea.</p> <p>4. helburua: Kultura programazio parekidea bulkatzea.</p> <p>5. helburua: Kirol arloan emakumeen pre-sentzia sustatzea</p>	<p>Helburu nagusia: Baztango neska gazteen ahalduntzea eta autoestimua lantzea.</p> <p>5. helburua: Baztango neska gazteen jabeakuntza prozesuak bultzatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: emakumeen lan aukerak handitu eta tokiko garapenean parte hartzeko bideak zabaltzea.</p> <p>4. helburua: lan munduan emakumeen presentzia areagotzea.</p> <p>5. helburua: emakumeek egin ohi dituzten lanei balio sozial eta ekonomiko handiagoa ematea.</p> <p>6. helburua: emakumeen ekintzaileratasuna bultzatzea</p>	<p>Helburu nagusia: Baztango emakumeen ahalduntze prozesuak bultzatzea.</p> <p>3. helburua: Baztango emakumeen ahalduntze prozesuak bultzatzea.</p> <p>4. helburua: Diskriminazio edo bazterketa arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoerak hobetzea.</p>	<p>Helburu nagusia: Emakumeen parte hartzea ahalduntzea</p> <p>2. helburua: Emakumeen parte hartzea bultzatu eta emakumeen lana ikusgai jarri.</p>



4.1.3. BATERIGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Bateragarritasun eta erantzunkidetasunerantz doan jendarte antolamendua lortzea ahalbidetuko duen tresna berriak sortzea izanen da urte hauetan bultzatuko den eredia. Beraz, Baztango Berdintasun Planeko hirugarren ardatzeko helburu nagusia honako hau da: emakumeak eta gizonak eremu publiko zein pribatuan erantzukizuna modu parekidean banatzea. Denboraren erabilera emakumeen eta gizonen artean modu berri batean banatzea ahalbidetuko duen ekintzen multzoa bilduko ditu hirugarren ardatz estrategikoak.

Ardatz estrategiko honetan honako helburu nagusiak zehaztu dira:



4.1.3. BATERIGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Tokiko administrazioa	Kultura, aisiaidialdia eta kirola	Hezkuntza eta Gazteria	Tokiko garapena enplegua	Osasuna eta Gizarte Zerbituzak	Lurralde Antolamendua
<p>Helburu nagusia: bateragarritasuna ahalbidetzea eta erantzunkidetasuna bultzatzea.</p> <p>9. helburua: Baztango Udaleko langileen artean bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bultzatzea.</p> <p>10. helburua: Baztanen bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bermatzeko neurriak hartzea.</p>	<p>Helburu nagusia: kultura, kirol zein aisiaidi jardueretan bateragarritasuna bultzatzea.</p> <p>6. helburua: Kultura, kirol zein aisiaidi jardueretan bateragarritasuna bultzatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: Hezkuntza komunitatean erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna bultzatzea</p> <p>6. helburua: Hezkuntza komunitatean erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna bultzatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: lan munduan bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bultzatzea.</p> <p>7. helburua: Etxeko lanen eta zaintzaren inguruko ardurak emakumeen eta gizonen artean orekatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: Gizarte Zerbitzu eta Osasun Zerbitzuetatik Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bultzatu.</p> <p>5. helburua: Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bultzatzeko baliabideak eskeini eta sentibilizazio programak sustatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: Udal instalazioetan bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna kontuan hartzea.</p> <p>3. helburua: Udal instalazioetan bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna kontuan hartzea.</p>



4.1.4 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazpenik larrienetakoa da. Egitura patriarkalean eusten den adierazpena izanik, indarkeria hau deuseztatzea da ardatz honen helburua. Ardatz honen barruan, bi norabidetako lan ildo proposatuko dira. Alde batetik, sentiberatzea eta prebentzioa lantzea eta, bestetik, indarkeria jasan duten emakumeei eskainitako arreta hobetzea. Horretarako Berdintasun Plan honek, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeriaren gaia lantzeko Baztan mailako koordinazio egitura bat bultzatzea proposatuko du.

Hauek dira laugarren ardatz estrategikoan biltzen diren helburu nagusiak:



4.1.4 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Tokiko administrazioa	Kultura, aisialdia eta kirola	Hezkuntza eta Gazteria	Tokiko garapena enplegua	Osasuna eta Gizarte Zerbituzak	Lurralde Antolamendua
<p>Helburu nagusia: emakumeen kontrako indarkeria eta sexu erasoei aurre egiteko neurriak hartzea.</p> <p>11. helburua: Emakumeen kontrako indarkeriaren desagerpenean herritarrei inplikaraztea.</p> <p>12. helburua: Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko administrazioaren koordinazioa antolatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: kultura, kirol zein aisialdi jardueretan emakumeen kontrako indarkeria desagerraraztea.</p> <p>7. helburua: Emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko aisialdi, kultura eta kirol jarduerak bultzatzea.</p> <p>8. helburua: Baztango herrietako bestetan indarkeria matxista desagerraraztea.</p>	<p>Helburu nagusia: emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa lantzea.</p> <p>7. helburua: Baztango jendartearen balore aldaketari eragitea nesken eta mutilen estereotipo eta rolak ezabatzearen.</p> <p>8. helburua: Gazteen artean emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko sentiberatze kanpainak bultzatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: lan munduan edozein mota-tako diskriminazioak ezabatzea.</p> <p>8. helburua: Emakumeek lan munduan jasan dituzten diskriminazioak desagerraraztea.</p>	<p>Helburu nagusia: indarkeria jasaten duten emakumeei arreta eskaini eta gaiaren inguruko sentiberatzea bultzatzea.</p> <p>6. helburua: Indarkeria sexistari jasan duten emakumei arreta, laguntza eta babes egokia emateko ballabideak hobetzea.</p> <p>7. helburua: indarkeria sexistari aurre hartzeko sentiberatzea bultzatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: Segurtasunik eza sortzen duten lekuak ezabatzea eta hauek ez sortzeko neurriak hartzea.</p> <p>4. helburua: Segurtasun eza sortzen duten lekuak ezabatzea eta hauek ez sortzeko neurriak hartzea.</p>



4.2. ARLOEN DEFINIZIOA

Eskuhartzeko eremu funtzionalak dira arloak. 2013an egindako Baztango diagnosian, Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. Planean eta EAEko IV. Planean oinarrituta eraldaketarako giltzarria izanen diren 6 eremu edo arlo aukeratu dira I. Berdintasun Plan honetan.

- 1-Tokiko administrazioa
- 2-Kultura, aisialdia eta kirola
- 3-Hezkuntza eta gazteria
- 4-Tokiko garapena eta enplegua
- 5-Osasuna eta gizarte zerbitzuak
- 6-Lurralde antolamendua

4.3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

Ondorengo taulan, Baztango I. Berdintasun Planak izanen dituen helburu eta ekintza zehatzen kopuruak azaltzen dira:

	Mainstreaming edo Zeharkakotasuna	Emakumeen ahalduntzea eta parte hartzea	Bataregarritasuna eta erantzunkidetasuna	Emakumeen kontrako indarkeria	GUZTIRA
Tokiko Administrazioa	1. helburua: 10 ekintza	7. helburua: 4 ekintza	9. helburua: 3 ekintza	11. helburua: 2 ekintza	
	2. helburua: 7 ekintza			12. helburua: 3 ekintza	
	3. helburua: 4 ekintza				
	4. helburua: 2 ekintza				
	5. helburua: 2 ekintza				
	6. helburua: 7 ekintza				
					50 ekintza



	Mainstreaming edo Zeharkakotasuna	Emakumeen ahalduntzea eta parte hartzea	Bataregarritasuna eta erantzunkidetasuna	Emakumeen kontrako indarkeria	GUZTIRA
Kultura, aisialdia eta kirola	1. helburua: 6 ekintza	3. helburua: 4 ekintza	6. helburua: 2 ekintza	7. helburua: 3 ekintza	
	2. helburua: 4 ekintza	4. helburua: 7 ekintza		8. helburua: 5 ekintza	
		5. helburua: 4 ekintza			
					35 ekintza
Hezkuntza eta gazteria	1. helburua: 3 ekintza	5. helburua: 2 ekintza	6. helburua: 4 ekintza	7. helburua: 3 ekintza	
	2. helburua: 12 ekintza			8. helburua: 4 ekintza	
	3. helburua: 3 ekintza			9. helburua: ekintza 1	
	4. helburua: 3 ekintza				
					35 ekintza
Tokiko garapena eta enplegua	1. helburua: 4 ekintza	4. helburua: 2 ekintza	7. helburua: 2 ekintza	8. helburua: 3 ekintza	
	2. helburua: 3 ekintza	5. helburua: ekintza 1			
	3. helburua: ekintza 1	6. helburua: 7 ekintza			
					23 ekintza
Osasuna eta gizarte zerbitzuak	1. helburua: 10 ekintza	3. helburua: 6 ekintza	5. helburua: 4 ekintza	6. helburua: 4 ekintza	
	2. helburua: 3 ekintza	4. helburua: ekintza 1		7. helburua: 2 ekintza	
					30 ekintza



	Mainstreaming edo Zeharkakotasuna	Emakumeen ahalduntzea eta parte hartzea	Bataregarritasuna eta erantzunkidetasuna	Emakumeen kontrako indarkeria	GUZTIRA
Lurralde antolamenduak	1. helburua: 5 ekintza	2. helburua: 2 ekintza	3. helburua: 3 ekintza	4. helburua: 2 ekintza	
					12 ekintza
					185 ekintza

5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA

5.1. TOKIKO ADMINISTRAZIOA

Herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa izanik, berebiziko garrantzia duen eskuhartzeko eremua da Tokiko Administrazioa. Baztango Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloan hartutako konpromisoaren adierazle nagusia izanen da Berdintasun Plan hau modu egokian garatu ahal izateko baldintzak eta baliabideak ezartzea. Udala baita Plana egikaritzearen arduradun nagusia. Horregatik, koordinazio gune egokiak sortu eta baliabideak jarri behar ditu martxan Plana onartzen den unetik.

Udala, langile eta enpresa kontratatzaile eta aldi berean zerbitzu emaitza den elean, bere lan jardunean genero ikuspegia xertatzea ezinbesteko baldintza izanen da berdintasunaren aldeko pausuak emateko. Honela, Udala administrazioa esku hartzea bidezkoagoa eta eraginkorragoa bultzatuz. Baztango Udala sail ezberdinetan dago banatuta: Kultura, Kirola, Oinarriko Gizarte Zerbitzua, Hondakinak, Euskara, Berdintasuna, Udaltzaingoa, Hirigintza Zerbitzua eta Musika eskola. Horregatik, Tokiko Administrazioaren arloa eskuhartzeko eremu ezberdinetara iristeko bide egokia da.

Baztango emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunen Diagnostikoa (2013) azpimarratu da Udala aukera berdintasunaren arloan zer edo zer egin behar duela eta erantzunak anitzak izan dira:

“indarkeria pairatzen duten emaztekiei babes eman”,

“emaztekiak animatu herrietako alkate eta kargudunak izateko”,

“emaztekiak animatu herrietako auzolanetan eta batzarretan parte hartzera”,


“sexuagatik gertatzen diren rolen haustera bultzatu”,



“jendartean hausnarketa sorrarazi”,
 “hizkera ez sexista bultzatu”,
 “diru-laguntzak eman”,
 “jardueren ordutegiak zaindu”,
 “sentiberatze kanpainak egin”.

Udal langileei buruzko argazkia egitea ere interesgarria da oso. Langileen banaketa oso parekidea da baina lan motari edo mailari erreparatuta bestelako irakurketa bat egin daiteke.

UDAL LANGILEAK SEXUKA ETA MAILAKA




Iturria: Udaletzeko datuekin Berdintasun zerbitzuak egina.

Lan maila eta sexuaren arabera banatuta, B mailan soilik emakumeak daude, B maila teknikarien maila da (Unibertsitateko ikasketak dituztenak: Kultura, Euskara, Kirolak, Gizarte langileak, Berdintasuna...) E mailan, baxuenean, eskolako graduatua eskatzen den horietan, emakumeak ere nagusi dira.

Gizonak nagusi dira ordea lanposturik altuenean eta batez ere, tarteko mailetan, C eta D mailetan (Batxilergo edo Lanbide Heziketako lehen zikloa edota goi zikloa eskatzen den horietan).

UDAL LANGILEAK LANPOSTUKA ETA SEXUKA



Iturria: Udalak emandako datuekin Berdintasun zerbitzuak egina.

Lanpostuen arabera aztertzeak, ohituraz eta sexuagatik egokitu zaizkigun rola aztertzeko aukera ematen du.

Gizonak	Emakumeak
Udalbatzailea	Gizarte langile
Mendizaina	Teknikari
Atezaina	Etxez etxeko langile
Askotariko eginkizunak	Administratzaile edo adm. laguntzaile
Palasta	
Peoi	

Deigarria da garbitzaileak (ohituraz emakumeen lana) ez direla udal langileak, lan horietarako enpresa bat kontratatzen da. Maila horretako bertze lanbideak ordea, eginkizun askotariko langileak adibidez, udal langileak dira.

Udal langileekin bukatzeko, ordezkari sindikalen argazkia ere egiten ahal dugu: nagusiki gizonak dira, emakumeen laukoitza.

Hautetsiak: Udalbatzan 7 emakume eta 6 gizon daude.

Azpiraratzekoa da bertzalde, Baztango Udaleko alkatea emakume izatea, hau baita ordezkari politikoen burua. Legealdi honetan burua emakumea da.

Herrietan aldiz, kontrako gertakaria dugu: 15 herrietako alkate zinpekoak gizonak dira. Batzarkideen artean, emakume bakarra dago eta Mendi komi-



sionatu gehienak gizonak dira, emakume bakarra dago 7 gizonen aldean.

Zaintza-lanak eta Udaleko lana bateragarri egin ahal izateko, Baztango Udal langileek ordutegi-malgutasuna dute. 2011ko apirilaren 11n Osoko bilkuran onartuta. (Martxoaren 10eko 257/2011 Foru aginduan oinarrituta)

Azken urte hauetan Baztango Udaleko lan jardunean aurrerapausuak egin diren arren, oro har ez da genero ikuspegiz lan egiten. Hizkera sexista sahiesteko prestakuntza eta aholkularitza eskaini da baina egun Baztango Udalak ez du irudi eta hizkuntza ez sexisten inguruko neurririk zehaztuta.



1. arloa: TOKIKO ADMINISTRAZIOA

Mainstreaming-zeharkaketakotatuna	Emakumeen ahalduntzea eta parte hartzea	Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna	Emakumeen kontrako indarkeria
<p>Helburu nagusia: Udaleko barne antolaketan zein kudeaketan genero ikuspegia txertatzea</p> <p>1. helburua: Berdintasun plana jendarteratu eta berau garatu ahal izateko egiturak eta baliabideak eskaintzea.</p> <p>2. helburua: Udaleko lan jardunean genero ikuspegia txertatzea.</p> <p>3. helburua: Udaleko ordezkari politikoei zein teknikariek genero ikuspegiz lan egitea.</p> <p>4. helburua: Udaleko kontratazio, diru-laguntza zein hitzarmenetan berdintasun klausulak ezartzea.</p> <p>5. helburua: Baztango Udaleko aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.</p> <p>6. helburua: Baztango jendartea emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren gaiarekin sentiberatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: Baztango emakumeen ahalduntzea sustatzea.</p> <p>7. helburua: Baztango eremu erabakitzailertan emakumeak subjektu aktibo izatea.</p> <p>8. helburua: Baztango emakumeen jabetkuntza prozesuak bultzatzea.</p>	<p>Helburu nagusia: Bateragarritasuna ahalbidetzea eta erantzunkidetasuna bultzatzea.</p> <p>9. helburua: Baztango Udaleko langileen artean bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bultzatzea.</p> <p>10. helburua: Baztanen Bateragarritasun eta erantzunkidetasuna bermatzeko neurriak hartzea.</p>	<p>Helburu nagusia: emakumeen kontrako indarkeria eta sexu erasoei aurre egiteko neurriak hartzea.</p> <p>11. helburua: Emakumeen kontrako indarkeriaren desagertenean herritarrak implikatzea.</p> <p>12. helburua: Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko toki administrazioaren koordinazioa antolatzea.</p>



ARLOA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA	Parte hartzaileak	2015	2016	2017	2018
ARDATZ ESTRATEGIKOA Mainstreaming - Zeharkotasuna					

HELBURU NAGUSIA: **Udaleko barne antolaketan zein kudeaketan genero ikuspegia txertatzea.**

1. helburua: Berdintasun plana garatu ahal izateko egiturak sortu eta baliabideak eskaintzea.

Ekintzak					
1. Plana garatzeko egiturak egonkortu eta lan metodologia adostu (Berdintasun Zerbitzua, Berdintasun batzorde mistoa, Berdintasun Batzorde irekia eta Hezkuntza kontseiluarekin elkarlanerako egitura).	Berdintasuna Alkatetza Sail guztiak Ordezkar politikoak	X			
2. Berdintasun Batzorde irekia indartu eta honen lana ezagutzera ematea.	Berdintasuna	X	X	X	X
3. Plana ezagutarazteko komunikazio plana garatzea. 3 fase ezberdinetan banatuta (Berdintasun Plana onartzen denean, Planak dirauen bitartean eta akitzen denean. Barneko (Udaleko langileei eta hautetsiei) zein kanpoko (Baztango eragileei eta herritarrei) komunikazioa.	Berdintasuna	X			
4. Urte amaieran datorren urteko kudeaketa plana landu eta onartzea.	Berdintasuna Sail guztiak	X	X	X	X
5. Baztango Udaleko Berdintasun sailak Nafarroako berdintasun gunetan parte hartzea bermatzea.	Berdintasuna	X	X	X	X
6. Udalak aukera berdintasuna sustatzeko bitartekoak jartzea eta berdintasun politikak jendarteratzea.	Berdintasuna Ordezkar politikoak	X	X	X	X
7. I. Berdintasun Planaren jarraipena egiteko metodologia prestatu eta bitartekoak jartzea.	Berdintasuna Alkatetza Sail guztiak Ordezkar politikoak	X			
8. I. Berdintasun Plana ebaluatzeke metodologia prestatu eta urteroko emaitza jendarteratzea.	Berdintasuna Sail guztiak	X	X	X	X
9. Baztango Udaleko arloen arteko koordinazioa indartzea.	Berdintasuna Sail guztiak	X	X	X	X



ARLOA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA	Parte hartzaileak	2015	2016	2017	2018
ARDATZ ESTRATEGIKOA Mainstreaming - Zeharkotasuna					
10. Baztango eragileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egitea bultzatu eta sare lana sustatzea.	Berdintasuna	X	X	X	X

2. helburua: Udaleko lan jardunean eta politika eta ekimen guztietan genero ikuspegia txertatzea

Ekintzak:					
1. Datu baseetan, zerrendetan, memoria, edo bestelako dokumentuetan sexu aldagaia kontuan hartzea.	Sail guztiak	X	X	X	X
2. Udaletxean dauden imprimakien azterlana egin eta zuzentzea.	Berdintasuna	X			
3. Barne zein kanpoko komunikazio ez-sexista bermatzeko prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea udal langile eta hautetsiei.	Berdintasuna Alkatetza Sail guztiak Ordezkaritza politikoak	X	X	X	X
4. Maiztasun batekin banatuko den boletinean hizkera ez sexistaren inguruko informazio/formazio materiala eskaintzea posta elektronikoko bidez (materiala eta ariketak).	Berdintasuna	X	X	X	X
5. Hizkera eta irudi ez-sexista erabiltzen dela bermatzea (Udal boletinean, bandoetan zein bestelako udal argitalpenetan).	Berdintasuna Sail guztiak Ordezkaritza politikoak	X	X	X	X
6. Hizkuntza ez-sexistarako irizpideak jasotzen dituen dokumentua lantzea.	Berdintasuna Sail guztiak Ordezkaritza politikoak		X	X	X
7. Udala ordezkatu behar den ekitaldi publikoetan talde parekidea osatzen saiatzea.	Ordezkaritza politikoak Sail guztiak	X	X	X	X

3. helburua: Udaleko ordezkaritza politikokoek zein teknikariek genero ikuspegiarekin lan egitea.

Ekintzak:					
1. Udaleko langile eta ordezkaritza politikoei bideratutako genero berdintasunerako prestakuntza plana bultzatzea.	Berdintasuna Sail guztiak Ordezkaritza politikoak	X	X	X	X



ARLOA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA	Parte hartzaileak	2015	2016	2017	2018
ARDATZ ESTRATEGIKOA Mainstreaming - Zeharkotasuna					
2. Maiztasun batekin aukera berdintasunaren gaiarekin zerikusia duen boletin informatiboa banatzea.	Berdintasuna	X	X	X	X
3. Baztango Udaleko sail guztietan genero ikuspegia txertatzeko aholkularitza eta bitartekoak eskaintzea.	Berdintasuna Sail guztiak	X	X	X	X
4. Udaleko lan-deialdi publikoetako gaitegian berdintasunari lotutako edukiak eta Baztango I. Berdintasun Planaren ezagutza bermatzea (gaitegi espezifikoak osatuz).	Berdintasuna Sail guztiak Idazkaritza		X	X	X

4. helburua: Udaleko diru-laguntzetan zein hitzarmenetan berdintasun klausulak ezartzea.

Ekintzak:					
1. Udalak ematen dituen diru-laguntzetan aukera berdintasuna sustatzea (elkartetarako diru-laguntzak, tokiko komunikabideekin egindako hitzarmenak...)	Idazkaritza Berdintasuna	X			
2. Udalak azpikontrataturako zerbitzuetan aukera berdintasunarekiko konpromisoa eskatzea.	Idazkaritza Berdintasuna		X	X	X

5. helburua: Baztango Udaleko aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.

Ekintzak:					
1. Baztango Udaleko aurrekontuetan Berdintasun sailarendako kontu-sail berezitua izatea, I. Berdintasun Plan honen garapenak eskatzen duenaren arabera.	Ordezkaritza politikoak	X	X	X	X
2. Aurrekontu orokorretan genero ikuspegia txertatzeko egitasmoak martxan paratzea.	Ordezkaritza politikoak			X	X

6. helburua: Baztango jendartea emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren gaiarekin sentiberatzea.

Ekintzak:					
1. Nazioarteko egunetan (martxoak 8, ekainak 28, urriak 15 eta azaroak 25) programazioa modu integral eta parte hartzailean antolatzea.	Berdintasuna Sail guztiak	X	X	X	X



ARLOA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA	Parte hartzaileak	2015	2016	2017	2018
ARDATZ ESTRATEGIKOA Mainstreaming - Zeharkotasuna					
2. Aukera Berdintasunaren gaiaren inguruko sentiberatze kanpainak bultzatzea eta honen hedapena egitea.	Berdintasuna	X	X	X	X
3. Abenduak 10 (Giza eskubideen egunean), Azaroak 20 (Umeen eskubideen egunean), abenduak 18, (Etorकिनen egunean), ekainak 20 (Errefuxiatuen egunean) eta beste data esanguratsuetan emakumeen aldarrikapenen eta egoeraren berri ematea.	Berdintasuna Gizarte Zerbitzuak		X	X	X
4. Baztango Udalak berdintasunaren bidean hartutako konpromisoa ikusaraztea eta bidezko esku hartze eraginkorren bidean emandako pausuak jendarteratzea komunikazio kanpainen bidez.	Berdintasuna	X	X	X	X
5. Baztango herriari ekarpen garrantzitsuak egin dizkioten emakumeak ikusaraztea, omentzea eta hauek egindako lana publikoki eskertzea.	Berdintasuna Udalbantza		X		X
6. Gizontasun berdintzailearen beharra indartzea eta aukera berdintasun gaietan gizezkoak inplikatzeko.	Sail guztiak	X	X	X	X
7. Baztanen berdintasun arloa landu nahi duten pertsonen eta erakundeen datu basea sortzea eta maiztasunez informazioa helaraztea.	Berdintasuna	X	X	X	X

1. helburuko adierazleak:

- Berdintasun egituren osaketa eta arduradun politikoen eta teknikarien kopurua.
- Batzordea ezagutarazteko erabilitako baliabide kopurua eta deialdia egin zaien pertsona kopurua.
- Egindako batzorde kopurua eta parte hartzaile kopurua.
- Berdintasun saila eta batzordearen ezagutza maila.
- Plana ezagutarazteko egindako komunikazio ekintza kopurua eta hauen balorazioa.
- Kudeaketa plana egin izana eta jasotako ekarpen kopurua.
- Egindako koordinazio bilera kopurua.
- Planaren jarraipenaren eta ebaluazioaren ezagutza maila.
- Berdintasuna sustatzeko jarritako bitarteko kopurua eta hauen balorazioa.

2. helburuko adierazleak:

- Sexu aldagaia kontuan hartu den edo ez.
- Hizkuntza eta irudi sexista erabili den dokumentu kopurua.
- Gaiaren inguruan bidalitako material kopurua eta jasotako erantzunak.
- Egondako agerraldi publiko ez-parekide kopurua.



ARLOA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA	Parte hartzaileak	2015	2016	2017	2018
ARDATZ ESTRATEGIKOA Mainstreaming - Zeharkotasuna					
3. helburuko adierazleak:					
<ul style="list-style-type: none"> Formazio planeko saio kopurua, parte hartzaile kopurua sexua eta lan arloa bereziz eta formazioaren balorazioa. Bidalitako boletín kopurua. Lan deialdi publikoetan berdintasun arloko gai kopurua. 					
4. helburuko adierazleak:					
<ul style="list-style-type: none"> Irizpideak betetzen dituzten talde eta zerbitzu kopurua. 					
5. helburuko adierazleak:					
<ul style="list-style-type: none"> Kontu-saila zenbatekoa den. Egitasmoen gauzatze maila. 					
6. helburuko adierazleak:					
<ul style="list-style-type: none"> Modu integralean gauzatu den edo ez. Ekintza kopurua eta parte hartzaile kopurua. Komunikazio kanpainako ekintza kopurua eta hauen harrera Ekintzen gauzatze maila. 					

ARLOA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA	Parte hartzaileak	2015	2016	2017	2018
ARDATZ ESTRATEGIKOA Emakumeen ahalduntzea eta parte hartzea					
HELBURU NAGUSIA: Baztango emakumeen ahalduntzea sustatzea.					

7. helburua: Baztango eremu erabakitzaileetan emakumeak subjektu aktibo izatea.

Ekintzak:

1. Emakumeen parte hartze politikoa bultzatzea.	Berdintasuna Ordezkaritza politikoa	X	X	X	X
2. Baztango 15 herrietan, alkate zineko eta kargodun izateko emakumeei zuzendutako kanpaina eta tailerrak sustatzea.	Berdintasuna Ordezkaritza politikoa		X		
